

STOP



EUSKAL HERRIKO ARMAGINTZARI


2014 eta 2016 urteen artean Espainiak Saudi Arabiara 900 milioi euro inguru armetan esportatu zituen. Kopuru horrek, AEBen eta Erresuma Batuaren atzetik, arabiar herrialdearen arma hornitzaile gisa hirugarren lekuan kokatzen du.

Euskal Herria estatu mailako armagintzan hirugarren postuan dago, Madril eta Andaluziaren atzetik. Arabia Saudik erabiltzen dituen **Eurofighter 2000 Typhoon** gerra hegazkinen eta garraio militarerako **Airbus A400M** hegazkinaren motorrak Zamudioko **ITP** (*Industria de Turbo Propulsores S.A.*) enpresan egiten dira.

Saudi Arabia parte hartze zuzena izaten ari da **Yemeneko gerra zibilean**. Eskolak, ospitaleak eta zibilak bonbardatu ditu bereizi gabe.

Gerrak Yemengo herriari ekarritako ondorioen artean:

- 12.000 hildako zibil. Erdia baino gehiago bonbardaketen ondorioz
- 3 milioi eta erdi barne desplazatu
- Populazioaren %83 larrialdi humanitario egoeran



“Guri ez zaigu axola aparatu militar edo zibil baterako motorrak fabrikatzea. Garrantzitsuena motorra fabrikatzea da, hori aberastasuna delako, eta batez ere garapen ekonomikoan parte hartu nahi dugulako, jaso ditugun diru-laguntza handietatik abiatuta.”

Ignacio Sánchez Galán *ITPko zuzendari ohia*

“Euskadiko motor turbopropulsorea zarete”

Iñigo Urkullu lehendakariak 2014ko ekainean ITPko langile eta agintariei zuzendutako hitzak.